AURKEZPEN GUTUNA:

Lan eskeintzei erantzutea eta auto-hautagaitzak



2024ko urria

Telefonoa: 848 42 45 00
orientacion@navarra.es
https://www.navarra.es/eu/enplegua

SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO
NAFAR LANSARE

AURKEZPEN GUTUNA

Edukia

1. Zer da aurkezpen-gutun bat? _____ 2
2. Gutuna prestatzea _____ 3
3. Aurkezpen-gutun motak _____ 3
4. Aurkezpen-gutunaren egitura _____ 7
5. Laguntzeko tresnak _____ 8
6. Azkeneko aholkuak _____ 10

1. Zer da aurkezpen-gutun bat?

Aurkezpen-gutun bat da, lanpostu baterako hautagaitza batean, CVarekin batera doan dokumentu bat, eta haren helburua da pertsona, bere motibazioak eta lanposturako egokitasuna labur aurkeztea.

Garrantzia:

- **Bereiztea**: Norberaren berezitasuna agertzea lan-merkatu lehiakor batean.
- **Humanizazioa**: Enpresaren balioekin bat egiten duen osagai pertsonal bat eransten du.
- Lehen inpresioa: Bereziki baliotsua auto-hautagaitzetan, harremana hasteko.

ARIKETA

Gogoeta: nola agertuko zenuke zure berezitasuna, zure hurrengo hautagaitzan? Idatzi zure funtsezko indarguneak eta zergatik erakartzen zaituen postuak.

2. Gutuna prestatzea

Gutuna idatzi aurretik, funtsezkoa da prestaketarako zenbait urrats egitea.

- **Zeure burua ezagutzea**: Definitu zure konpetentziak eta esperientzia, eta zertan datozen bat lanpostuarekin.
- **Ikerkuntza**: Ongi ezagutu enpresa, zure mezua haien beharretara egokitzeko.
- **Pertsonalizazioa**: Egokitu gutun bakoitza eskaintza espezifikora edo enpresara, auto-hautagaitzen duzun kasuetan.

ARIKETA

Egin ezazu zure trebetasun nagusien zerrenda bat eta lotu bakoitza lanpostuaren eskakizunekin edo enpresaren ikuspegiarekin.

3. Aurkezpen-gutun motak

Hainbat gutun mota daude:

- **Lan-eskaintza baterako gutuna**: Eskaintza zehatz bati erantzuteko erabiltzen da, zure trebetasunak azpimarratzeko.
- **Auto-hautagaitzako gutuna**: Zure profila enpresa bati proposatzen diozunean, eskaintzarik ez badago ere, azaldu zer balio ematen ahal diozun enpresari.
- **“LinkedIn eskaerako” gutuna** : Mezu laburra, plataforma profesionalen bidez lehen harremana ezartzeko.

LAN ESKAINTZA BATERAKO GUTUNAREN TXANTILOIA

Egun on:

Nire interesa azaldu nahi nuke [lanpostuaren izena] lanposturako, argitaratuta ikusi bainuen [non ikusi duzun eskaintza]. Ziur nago nire esperientzia [aipatu laburki funtsezko trebetasun edo esperientzia bat] eta nire gaitasunak [beste gaitasun garrantzitsu bat] lantaldeari ekarpen handia egiten ahal diotela.

[Zure esperientzia garrantzitsuaren deskribapen laburra] egindako ibilbidean, [lanposturako lorpen edo trebetasun garrantzitsuren bat] garatu ahal izan dut. Interes handia dut zuekin lan egiteko; izan ere, [aipatu enpresaren arreta erakarriko dizun zerbait].

Prestasun osoa dut informazio gehigarria emateko edo elkarrizketa egiteko. Eskerrik asko gutun hau irakurtzeko denbora hartzeagatik. Laster hitz egiteko aukera izanen dugulakoan,

adeitasunez, agur,

[izen-deiturak]



ARIKETA

Idatzi aurkezpen-gutun labur bat lanpostu zehatz baterako.



AUTO-HAUTAGAITZARAKO GUTUNAREN TXANTILOIA

Kaixo:

Nire hautagaitza helarazi nahi nizueke, interes handia baitut [enpresaren izena] enpresan lan egiteko. Esperientzia dut [zure esperientzia-arloa edo trebetasun nagusiak], eta horrek balioa eransten ahal die zuen proiektu eta helburuei.

Zuen lana jarraitu dut [aipatu erakundetik arreta piztu dizun alderdiren bat], eta gustura hartuko nuke zuen taldeari nire ekarpena egiteko aukera. Zuen esanetara naukazue, zeinahi galdera nahiz zalantza argitzeko.

Eskerrik asko zuen arretagatik, espero dut harremanetan

egoteko aukera izatea. Adeitasunez, agur,

[izen-deiturak]

ARIKETA

Idatzi aurkezpen-gutun labur bat auto-hautagaitza baterako.

4. Aurkezpen-gutunaren egitura

Ongi idatzitako gutun batek egitura argia izan behar du:

- **Aurkezpena**: Zergatik ari naiz idazten? Sarrera laburra eta idazteko arrazoia. Lanpostu baten eskaintzari erantzuteko gutunean, argi dago "X eskaintzari erantzunez" idazten duzula. Auto-hautagaitzaren gutunean, ordea, oso paragrafo garrantzitsua da hau, nabarmendu behar baituzu zerk erakartzen zaituen enpresa horretatik eta bertan ari diren langileengandik.
- **Azalpena**: Zer ekarpen egin dezaket? Nabarmendu zure konpetentziak eta motibazioak.
- **Bukaera**: Adierazi elkarrizketa bat izateko interesa duzula.

Adibidea:

Aurkezpen-paragrafoa: "Zuregana jotzen dut [enpresaren izena] enpresako [lanpostuaren izena] lanpostuan interesa dudala adierazteko."

Azalpen-paragrafoa: "[Konpetentzia] ditudan trebetasunei esker, [onura zehatza] ekarpena egiten ahal dut lanpostu horretan."

Gutuna bukatzeko paragrafoa: "Honekin batera nire curriculuma bidaltzen dizuet, kontuan har dezazuen, eta zuen esanetara nago elkarrizketa bat egiteko".

ARIKETA

Idatzi aurkezpen-gutun bat, gomendatutako hiru paragrafoak erabiliz. Aztertu ea tonua argia eta zuzena den eta zure motibazioak islatzen dituen.

5. Laguntzeko tresnak

Gaur egun, aurkezpen-gutunak sortzea errazten duten hainbat tresna digital daude.

- **Aurkezpen-bideoa**: Enpresek gero eta gehiago baloratzen dute, hautagaitza humanizatzen laguntzen baitu. Planifikatu zure aurkezpen-bideoa hiru zatitan: sarrera, garapena eta bukaera.
- **Plataformak eta tresnak**: Txantiloien gaineko ideiak lortzeko, zenbait plataforma erabitzen ahal dituzu, hala nola **Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren webgunea, Canva, Zety** edo adimen artifizialeko tresnak (**ChatGPT edo Gemini**).

ARIKETA

Sortu aurkezpen-bideoaren zirriborroa (1-2 minutu). Egin praktika kamera baten aurrean, eta erantzun galdera hauei:
Nor zara? Zer ekarpen egin dezakezu? Zergatik duzu interesa lanpostu honetan?

ARIKETA

Erantsi hemen plataforma eta/edo tresna horien bidez deskargatu duzun txantiloi bat, eta ondoren pertsonalizatu ezazu, zeure gutuna sortzeko.



6. Azken aholkuak

1.

Egokitu gutuna: Ez egin gutun orokor bat: pertsonalizatu ezazu gutun bakoitza.

2.

Nabarmendu zure lorpenak: Aipatu zure hautagaitza indartzen ahal duten lorpen garrantzitsuak.

3.

Idatzi gutun laburra: Orrialde erdia aski da. Erabili esaldi argiak.

4.

Aztertu ortografia eta gramatika: Akats batek inpresio okerra eragin dezake.

ARIKETA

Berrikusi zure gutuna, eta pentsatu zer hobetzen ahal duzun.

OHARRAK





Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO
Y ECONOMÍA SOCIAL

Plan de
Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

SERVICIO PÚBLICO
DE EMPLEO ESTATAL
SEPE

SISTEMA
NACIONAL DE EMPLEO

Centros de Orientación,
Emprendimiento, Acompañamiento
e Innovación para el Empleo

Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra

SERVICIO
NAVARRO DE
EMPLEO

NAFAR
LANSARE